

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Administrazio-espeditentea hastea behin-behineko erabileretarako prekarioko udal-lizentzia emateko, 4 poligonoko 134 lurzatian aparkaleku bat eraikitzeko, Murgako Administrazio Batzarrak eskatuta

Alkatearen abenduaren 16ko 592/2020 Dekretuaren bidez, erabaki hau hartu du:

Behin-behineko erabileretarako prekarioko udal-lizentzia emateko administrazio-espeditentea hastea, 4 poligonoko 134 lurzatian aparkaleku bat eraikitzeko, Murgako Administrazio Batzarrak eskatuta, ekainaren 30eko 2/2006 Legearen (EAELHL) 36. eta 37. artikuluen arabera; izan ere, lurzatia Murgako Plan Partzialeko bizitegitarako lurzoru urbanizagarriaren sektorearen barruan dago, baina oraindik ez da egin, eta jendaurrean jarri da iragarki hau argitaratzen denetik harako hogeï egun balioduneko epearen barruan; edozein interesdunek udal bulegoetan aztertu ahal izango ditu espeditenteko agiriak eta bidezkoztat jotzen dituen alegazioak aurkeztu ahal izango ditu.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2020ko abenduaren 16a

Alkate-lehendakaria
GENTZA ALAMILLO UDAETA